

Jesus Santos, ehizako txakurren txapelduna:

“Txakurra hezteak eguneroko lana eta sakrifizioa dakar”

Iazko urrian Italiako Cantalupo hirian egon zen Jesus Santos bere txakurrarekin, Dac de Playabarrarekin, bertan ospatu baitzen Ehizako Txakurren Europako Txapelketa. Han lortutako sailkapenak munduko txapelketara eraman zuen ermuar hau. 100 titulu inguru ditu.

- Nola moldatu zineten Cantalupon?

Nik txakurra gidatzen dut soilik, eta “4 bikain” bat egin genuen. Kalifikazio honen Top 10ean sartu gintuen, eta Danimarkara eraman gintuen urriaren 21 eta 22an, bertan ospatu baitzen Munduko Txapelketa. Nire txakurra setter ingelese da, Dac de Playabarri, eta aitortu behar dut izan dudana txakurri onena dela.

- Zertan datza horrelako txapelketa?

Bikoteka irteten gara zela luze batera, eta bikote batek bukatzean besteak ekiten dio. Oso garrantzitsua da txakurrak beti haizearen alde korrika egitea, aurrez aurre. Lursailean dauden presak edo ehizatzeoak hauteman behar ditu, erakutsi eta hegan egitean jaurtigairik gabeko tiro bat egiten da. Txakurra geldi geratu behar da, hau da, ezin da presaren atzetik joan, ezin da ehizatu. Horri *punto* egitea deritzo. Lan erraza ematen du, baina ez da batere erraza. Gainera, fisikoki oso ondo egon behar duzu doan abiaduragatik eta

lursaila oso handia delako. Ideia egiteko, Ermuan hasi daiteke eta Durangon amaitu.

- Parte hartzen duzuen lehen aldia izan da?

Ez, 4 txapelketetan parte hartu izan dut Europa mailan. Hara joatea ez da lan erraza: Estatuko 4 txakur joaten dira soilik, onenak, eta lehiaketetan 70 txakur inguru egon daitezke.

- Zer gaitasun behar ditu txakur batek ondo aritze-ko?

Txakur bakoitzak bere arrazako estandarra du, eta zenbat eta zehatzagoa izan hobe. Horrez gain, heziketa beharrezkoa da lehiaketan parte hartzeko. Lehenengo minutuan txakurraren jarra onak kontatzen du, baina gero hark egindako okarren batek txapelketatik kanpora eraman zaitzake. Txakurrak 20 minutu ditu bere trebetasunak eta barruan duen guttia azaleratzeko, eta horrek eguneroko lana dakar, eguneroko esfortzua eta sakrifizioa. Alturan entrenatzen da, ahal izanez gero.

- Nolatan hasi zinen zale- tasun honekin?



Lagun batzuekin hasi nintzen, mundu honetan oso ezagunak direnak: Lorenzo Urra erandiotarra eta Iñaki Elorriaga zornotzarra. Eurekin asko ikasi nuen, eta 1996an aurkeztu nintzen txakurren epaile nazionala izateko azterketara. Horretan urte asko eman eta gero, asko ikasita, noski, maila altuan lehiatzera ausartu nintzen.

- Orain arte lortutako zein emaitza nabarmenduko zenituzke?

Gaur egunera arte “2 bikain” lortu ditugu Europako txapelketan, Nissen (Serbian) 2011ko martxoan. Beste “2 bikain” Greziako Ollagorras Europako txapelketan, 2012ko abenduan. Mun-

du osoko trofeorik ezagunena Estatuko bi txakurrek bakarrik irabazi dute: kasualitatez Dac-en aitona Lider de Playabarrak (Juan Jose Alea bizkaitarrarena) 2002an, eta nire txakurrak, 2012an Vassibierren (Frantzia), 3 egun lehiatzen egon ostean. Horrez gain, beste zenbait sari irabazi izan ditut: Andaluziako txapelketa 2010ean, 3 Errege Kopa 2010ean, Bizkaitxo Txapelketa 2010, 2011 eta 2012an, eta ia 70 lehiaketa nazional eta nazioartekoak. 2016an lortu nituen: Euskadiko 3 txapelketa, Espainiako 4, Europako 4 eta top 10 zerrenda barruan egotea mundu mailan.

Armaia Arginzoniz

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

esanline®

+ @ +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es